

**INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA**

7195

AGINDUA, 2008ko abenduaren 9koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena; honen bitartez, tokiko erakundeentzako eta horiek sustatutako erakundeentzako diru-laguntzen programa (kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak eta interesak sustatu eta defendatzeko programa) garatzen duen agindua bigarren aldiz aldatzen da.

Ekonomia Sustatzeko zenbait laguntza-linea ezarri zituen ekainaren 27ko 121/2000 Dekretuak, kontsumoaren arloko laguntza-lineak arautu zituen IV. kapituluan. Dekretu horretako 26. artikulua tokiko erakundeentzako eta erakunde horiek sustatutako erakundeentzako diru-laguntzen programa bildu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak eta interesak sustatzeko eta defendatzeko, eta dekretuaren 4. atalean diru-laguntzak emateko prozedura lehiaketa izango dela zehaztu zen.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua bere eskumenen eremuan laguntza-programak aldatzeko eta indargabetzeko gaitzen duen uztailaren 8ko 130/2008 Dekretuak indargabetu egiten ditu aipatutako ekainaren 27ko 121/2000 Dekretua eta dekretu hori aldatzen duten ondorengo dekretu guztiak.

2005eko martxoaren 30eko Aginduak, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak emanak (Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2007ko maiatzaren 29ko Aginduak aldatu zuen agindu hori), tokiko erakundeentzako eta erakunde horiek sustatutako erakundeentzako diru-laguntzen programa garatzen duenak, Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak eta interesak sustatzeko eta defendatzeko, ez du diru-laguntzak emateko prozedura zehazten; horrenbestez, aipatutako ekainaren 27ko 121/2000 Dekretua indargabetu ondoren, 2005eko martxoaren 30eko Agindua aldatu behar da, bertako artikuluetan aginduan zehaztutako laguntzak lehiaketa-prozeduraren bidez ebatziko direla adierazteko.

Era berean, Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Bulegoak zerbitzuak emango dituen ordutegiaren inguruko aldaketak gehitzen dira (udalerriko edo mankomunitateko biztanleria-bolumenaren mende egongo da ordutegia), eta ekipamendu berria erosteko laguntzetan 1.000 euro baino gutxiagoko gastuak ez direla diruz lagunduko zehazten da. Aldaketa horien guztien helburua espedienteen prozedura eta izapidetzea hobetzea da.

Horren ondorioz, honako hau

**DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO**

7195

ORDEN de 9 de diciembre de 2008, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, de 2.ª modificación de la Orden por la que se desarrolla el programa de concesión de ayudas económicas destinadas a Entidades Locales y Entidades promovidas por ellas para la promoción y defensa de los derechos e intereses de las personas consumidoras y usuarias.

El Decreto 121/2000, de 27 de junio, en el que se establecían distintas líneas de Ayudas con Fines de Promoción Económica, regulaba en el Capítulo IV las líneas de ayuda en el área de Consumo, recogiendo en su artículo 26, el programa de ayudas destinadas a Entidades Locales y entidades promovidas por ellas para la promoción y defensa de los derechos e intereses de las personas consumidoras y usuarias del País Vasco, y señalando en su apartado 4 que el procedimiento para la concesión de las ayudas será el concurso.

El Decreto 130/2008, de 8 de julio, por el que se habilita a la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, para la modificación y derogación de programas de ayudas en el ámbito de su competencia, deroga el citado Decreto 121/2000, de 27 de junio, y todos los decretos posteriores de modificación del mismo.

La Orden de 30 de marzo de 2005, dictada por la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, modificada por la Orden de 29 de mayo de 2007, dictada igualmente por la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, que desarrolla la regulación del programa de concesión de ayudas económicas destinadas a Entidades Locales y entidades promovidas por ellas para la promoción y defensa de los derechos e intereses de las personas consumidoras y usuarias del País Vasco, no especifica el procedimiento para la concesión de las ayudas, por lo que tras la derogación del citado Decreto 121/2000, de 27 de junio, ha de llevarse a cabo la modificación de la Orden de 30 de marzo de 2005 para señalar en su articulado que las ayudas establecidas en la misma se resolverán mediante el procedimiento de concurso.

Al mismo tiempo se introducen modificaciones referentes al horario en que prestará sus servicios la OMIC, que dependerá del volumen de población del municipio o mancomunidad, y se establece que en las ayudas para adquisición de nuevo equipamiento no se subvencionarán gastos inferiores a 1.000 euros, modificaciones conducentes todas ellas a mejorar el procedimiento y la tramitación de los expedientes.

En su virtud,

XEDATU DUT:

Lehenengo artikulua.— Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2005eko martxoaren 30eko Aginduaren 2. artikuluan hirugarren paragrafo bat gehitu da; agindu horren bitartez, tokiko erakundeentzako eta erakunde horiek sustatutako erakundeentzako diru-laguntzen programa garatzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak eta interesa sustatzeko eta defendatzeko, eta honela geratu da idatzita:

«Agindu honetan ezarritako laguntzak, 4. artikuluan adierazitako kontzeptu subentzionalgarri bakoitzerako, lehiaketa prozeduraren bidez ebatziko dira».

Bigarren artikulua.— Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2005eko martxoaren 30eko Aginduaren 7. artikulua aldatu da; agindu horren bitartez, tokiko erakundeentzako eta erakunde horiek sustatutako erakundeentzako diru-laguntzen programa garatzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak eta interesa sustatzeko eta defendatzeko, eta honela geratu da idatzita:

«7. artikulua.— Agiriak.

1.— Oro har, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira eskabidearekin batera:

a) Organo eskudunak laguntzari atxikitzeko hartutako erabakiaren ziurtagiria, eskatutako diru-kopuru zehatza adierazita.

b) Udalaren Idazkaritzaren edo organo eskudunaren ziurtagiria, kontsumitzaile eta erabiltzaileen kontsultak erantzuteko eta aurkezten diren erreklamazioak edo salaketak bideratzeko bulegoa irekia egongo den ordutegia adierazita.

Herri bati euren zerbitzuak ematen dizkieten udalerriak edo mankomunitateak:

— 20.000 biztanle baino gehiago dituzten herrietan, astean gutxienez 20 orduz egongo dira irekita.

— 10.000-20.000 biztanle dituzten herrietan, astean gutxienez 8 orduz egongo dira irekita.

— 10.000 biztanle baino gutxiago dituzten herrietan, astean gutxienez 4 orduz egongo dira irekita.

c) Udalaren Idazkaritzaren edo organo eskudunaren ziurtagiria, laguntza hauen xede diren jardueretarako beste organismo batzuei eskatutako diru-laguntzei buruzkoa.

d) Udalaren Idazkaritzaren edo organo eskudunaren ziurtagiria, Udalerrian, Mankomuni-

DISPONGO:

Artículo primero.— Se añade un tercer párrafo en el artículo 2 de la Orden de 30 de marzo de 2005, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se desarrolla el programa de concesión de ayudas económicas destinadas a Entidades Locales y entidades promovidas por ellas para la promoción y defensa de los derechos e intereses de las Personas Consumidoras y Usuarías del País Vasco redactado en los siguientes términos:

«Las ayudas establecidas en la presente Orden, para cada uno de los conceptos subvencionables señalados en el artículo 4, se resolverán mediante el procedimiento de concurso».

Artículo segundo.— Se modifica el artículo 7 de la Orden de 30 de marzo de 2005, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se desarrolla el programa de concesión de ayudas económicas destinadas a Entidades Locales y entidades promovidas por ellas para la promoción y defensa de los derechos e intereses de las Personas Consumidoras y Usuarías del País Vasco, quedando redactado en los siguientes términos:

«Artículo 7.— Documentación.

1.— La documentación que deberá acompañar a la instancia de solicitud será con carácter general la siguiente:

a) Certificación del Acuerdo del órgano competente acogiendo a la ayuda, con expresión de la cantidad exacta solicitada.

b) Certificación de la Secretaría del Ayuntamiento u órgano competente, en la que se haga constar el horario en el que la oficina permanece abierta al público para atender las consultas de las personas consumidoras y usuarias y para cursar reclamaciones o denuncias que se les presenten.

Los municipios o mancomunidades que presten sus servicios a una población:

— Superior a 20.000 habitantes, permanecerán abiertos al público al menos 20 horas semanales.

— Entre 10.000 y 20.000 habitantes, permanecerán abiertos al público al menos 8 horas semanales.

— De menos de 10.000 habitantes, permanecerán abiertos al público al menos 4 horas semanales.

c) Certificación de la Secretaría del Ayuntamiento u órgano competente sobre solicitudes de ayuda a otros organismos para las actividades objeto de subvención.

d) Certificación de la Secretaría del Ayuntamiento u órgano competente sobre la población

tatean edo Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Bulegoak bere zerbitzuak garatzen dituen arean deialdiaren aurreko urteko abenduaren 31n zegoen biztanleriari buruzkoa.

e) Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Bulegoak emandako zerbitzua Kontsumitzailearen Elkartean batekin ituntzen denean, dagokion hitzarmenaren kopia aurkeztu beharko da, eta bertan tokiko erakundeak elkarteari emango dion kontraprestazioaren zenbatekoa adierazi beharko da.

f) Zerbitzua merkataritza-sozietate baten bitartez kudeatzen bada, zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean egotearen ziurtagiria.

2.- Eskatutako laguntza 4.a) artikuluan aurreikusitako gastuak ordaintzera bideratzen bada, eskabidearekin batera, eta aurreko paragrafoan adierazitakoaz gain, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Deialdiaren aurreko ekitaldian kontsumo-arloan Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Bulegoak garatutako jardueren ziurtagiri xehatua.

b) Funtzionamendu- eta jarduera-gastuen aurrekontua, behar bezala xehatua, Udalaren edo organo eskudunaren esku-hartzearen bitartez ikus-onetsia.

3.- Eskatutako laguntza 4.b) artikuluan aurreikusitako gastuak ordaintzera bideratzen bada, artikuluan honen 1. paragrafoan adierazitakoaz gain, eskabidearekin honako hau aurkeztu beharko da: Udalaren Idazkaritzaren edo organo eskudunaren ziurtagiria, deialdiaren aurreko urtean egindako eta dokumentu publikoan jasotako ikuskapen kopurua adierazita, ikuskatutako sektoreak eta izandako emaitzak zehaztuta, eta baita kontsumo-ikuskapenak egiteaz arduratutako langileak eta horien kostua ere.

4.- Eskatutako laguntza ekipamendu berria erostera bideratzen bada, artikuluan honen 1. paragrafoan adierazitakoaz gain, eskabidearekin batera aurrekontu xehatua aurkeztu beharko da, Udalaren edo organo eskudunaren esku-hartzearen bitartez ikus-onetsia.

1.000 euro baino gutxiagoko gastuak ez dira diruz lagunduko.

5.- Eskatutako laguntza 4 c) paragrafoan aurreikusitako gastuak ordaintzera bideratzen bada, artikuluan honen 1. puntuan adierazitakoaz gain, eskabidearekin batera dagokion proiektua onartzen duen organo eskudunaren Erabakia aurkeztu beharko da, eta bertan, publikoari arreta egokia emateko lokalak baldintza egokiak

existenten 31 de diciembre del año anterior al de la convocatoria, en el Ayuntamiento, Mancomunidad o Área en la que la OMIC desarrolla sus servicios.

e) Cuando el servicio prestado por la OMIC sea concertado con una Asociación de Personas Consumidoras, deberá adjuntarse copia del convenio correspondiente en el que deberá figurar el importe de la contraprestación que la entidad local satisface a la asociación.

f) En caso de que el servicio se gestione mediante una sociedad mercantil, certificado de estar al corriente de las obligaciones tributarias y para con la Seguridad Social.

2.- Si la ayuda solicitada está destinada a sufragar los gastos previstos en el art. 4.a), deberá acompañar a la instancia de solicitud, además de lo indicado en el párrafo anterior, la siguiente documentación:

a) Justificación pormenorizada de las actividades desarrolladas por la OMIC en materia de consumo en el ejercicio anterior al de la convocatoria.

b) Presupuesto debidamente desglosado de gastos de funcionamiento y actividades visado por la intervención del Ayuntamiento u órgano competente.

3.- Si la ayuda solicitada está destinada a sufragar los gastos previstos en el art. 4.b), deberá acompañar a la instancia de solicitud, además de lo señalado en el párrafo 1 de este artículo, certificación de la Secretaría del Ayuntamiento u órgano competente que recoja el número de inspecciones reflejadas en documento público realizadas en el año anterior al de la convocatoria, especificando los sectores inspeccionados y los resultados obtenidos, así como el personal encargado de realizar inspecciones de consumo y coste del mismo.

4.- Si la ayuda solicitada está destinada a la adquisición de nuevo equipamiento, deberá acompañar a la instancia de solicitud, además de lo señalado en el párrafo 1 de este artículo, presupuesto desglosado visado por la intervención del Ayuntamiento u órgano competente.

No serán subvencionados gastos inferiores a 1.000 euros.

5.- Si la ayuda solicitada está destinada a sufragar los gastos previstos en el art. 4.c) deberá presentarse además de lo señalado en el punto 1 de este artículo, certificación del Acuerdo del órgano competente por el que se aprueba el proyecto correspondiente en el que, además de garantizar las condiciones de idoneidad del local

dituela bermatzeaz gain, proiektuaren kostu ekonomikoa balioetsiko da.

6.– Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Bulego berri bat instalatzen bada, artikuluko honen 1. eta 5. paragrafoetan adierazitakoaz gain, eskabidearekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira:

a) Korporazioaren osoko bilkuraren edo organo eskudunaren erabakia, Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Bulego berria sortzea erabakitzen duena.

b) Organo eskudunaren ziurtagiria, Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Bulegoa Kontsumitzaileen Informazio eta Arretarako Zentroen sarean integratzeko konpromisoa adierazita.

7.– Eskabidea zerbitzua partekatzen duten hainbat erakunde ordezkatzeko dituen tokiko erakunde batek aurkeztu duenean, tokiko erakunde guztien dokumentazioa erantsi beharko da eskabidearekin batera».

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Bigarrena.– Agindu honen aurka, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezarri ahal izango da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko abenduaren 9a.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

para una correcta atención al público, se valorará económicamente el coste del proyecto.

6.– En el caso de instalación de una nueva OMIC, además de lo señalado en los párrafos 1 y 5 de este artículo, deberá adjuntarse a la solicitud:

a) Acuerdo del pleno de la Corporación u órgano competente en el que se decide crear la nueva OMIC.

b) Certificación del órgano competente en la que se recoja el compromiso de integración de la OMIC en la red de Centros de Información y Atención a las Personas Consumidoras.

7.– Cuando la solicitud se presente por una Entidad Local en representación de varias con las que comparta servicio, deberá adjuntarse a la solicitud la documentación referida a todas y cada una de las citadas Entidades Locales».

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.– Contra la presente Orden podrá interponerse recurso contencioso-administrativo, ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de diciembre de 2008.

La Consejera de Industria, Comercio y Turismo,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.